



2015EKO OTSAILAREN 20KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabosteko otsailaren hogeian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Haizea Mendia Insausti eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Kepa Goenaga Alikostes eta Maialen Aldasoro Aranburu zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2015eko otsailaren 6an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2014ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 121 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HAMALAU MILA BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA HAMAR EURO ETA BI ZENTIMO (14.950,02 €)takoa eta 2015eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 4 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, BEDERATZI MILA BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA SEI EURO ETA HOGEITA ZAZPI ZENTIMO (9.926,27 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- LAZKAOKO BERDEGUNE TA PARKE ZAINTZARAKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA.-

1.- Udal honetako Alkateak 2011ko apirilaren 27an luzatutako ebazpen bidez, SERBITZU ELKARTEA S.L. enpresari "Lazkaoko udalerriko lorategi, parke eta berdeguneen Kontserbazio eta Mantenimentu Kontratua" SERBITZU ELKARTEA S.L.ri esleitzea ebatzi zuen.

Kontratuaren iraunaldia amaituta, Udal honek baldintza tekniko eta administratiboen pleguak onartzea aurreikusten du, eta zerbitzua esleitzeko lizitazio berria deitzea.

2.- Azaldutakoaren arabera, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bateratuko 120. artikuluan ezarritakoaren arabera, Pleguan barneratua gelditu dadin, Administrazio honetatik SERBITZU ELKARTEA S.L.ri subrogazioak eragiten dien langileen kontratuetako baldintzei buruzko informazioa eskatu zaio, eta hori, lizitatzailerik posibleen lan kostuen ebaluaketa egitea ahalbidetzeko.

3.- Informazioa jasota, bidalitako zerrendan "enkargatu" kategoriarekin pertsona bat agertzen dela egiaztatu da, %25eko dedikazioarekin, bere momentuan subrogatutako pertsonalaren zerrendan agertzen ez zena, eta beraz ez dagokio lizitazio berriaren esleipendun izango den enpresak hau subrogatzea.

4.- SERBITZU ELKARTEA S.L.-ko arduradunekin elkarrizketatu gara, aipatu enpresak zuzendutako informazioa aurkezteko helburuarekin, eta "enkargatu" bezala izendatutako pertsona langileen zerrendatik kanpo utziz, oraindik egin ez dena.

5.- Adierazi den bezala, behin eta berriz aipatutako zerrendan "Enkargatu" bezala izendatutako langilea, aurreko kontratuan subrogatutakoaren artean ez zen agertzen, eta Udalak SERBITZU ELKARTEA S.L.rekin izenpetutako kontratua ere ez da aldatua izan.

6.- Espedientean Udaleko Zerbitzuburuaren txosten teknikoa jasota dago, non adierazten den, "Enkargatuaren" figura eta hala nola honen dedikazioa, ez datozela bat Lazkaoko Udalak kontratatu beharreko zerbitzuaren beharrekin.

7.- Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bateratuko 1. artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdiko baldintza tekniko eta administratiboen pleguetan jaso beharreko informazioa egiazkoa izan behar da, eta kontratazio organoei dagokie kontratuaren prezioa, berau benetan betetzeko egokia izatea, bere zenbatekoa zuzen balioztatuz (TRLCS-ko 87. art.). Honek, esleitzeko ahalordea duena irten den enpresak emandako informazioa egiaztatzerako behartzen du, kontratua zuzenduko duten pleguetan barneratu aurretik, organo honek aipatu informazioa berrikusteko ahalmena duelarik.

Azaldutakoaren ondorioz, eta 2015eko urtarrilaren 20ko Hirigintza Batzordean gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrek, bertaratutako bere partaide guztien aldeko bozuekin, zera erabakitzen du:

LEHENA.- Udalerriko lorategi, parke eta berdeguneen Kontserbazio eta Mantenimendu zerbitzua kontratatzeke Lazkaoko Udalak deitu behar duen lizitazioko baldintza tekniko eta administratiboen pleguan konstaraziko da, SERBITZU ELKARTEA S.L.k bidalitako pertsonalaren zerrendatik, esleipendun berriak subrogatu beharrekoa, ez diola eragiten "Enkargatu" kategoria duen pertsonari, %25eko dedikazioarekin, hau ez baita agertzen bere momentuan subrogatutako pertsonalaren zerrendan, eta ez dator bat zerbitzua emateko beharrekin.

BIGARRENA.- Ebazpen hau SERBITZU ELKARTEA S.L.ri jakinaraztea.

IV.- LAZKAOKO BERDEGUNE TA PARKE ZAINZARAKO LEHIAKETARAKO DEIALDIA .-

Lazkaoko Udalak, 2014ko azaroaren 7an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean hartutako erabaki bidez, Lazkaoko Udal honetako hiriguneko berdegune, parke eta lorategien mantenimendu eta artapen zerbitzuaren kontrataziorako osatutako espedientea onartu eta lehiaketarako deialdia egitea erabaki zuen.

2014eko abenduaren 5eko Tokiko Gobernu Batzarrean erabaki bidez berriz lehiaketa bertan behera uztea erabaki zen langileen subrogazioaren inguruko baldintzen berrazterketa egiteko.



Berrazterketa hori egin ondoren, gaurko bilkuran, honen aurreko puntuan gai horren inguruko erabakia hartu da.

Guzti hau horrela, Lazkaoko Udal honetako hiriguneko berdegune, parke eta lategien mantenimentu eta artapen zerbitzuaren kontrataziorako osatutako espedientea ikusi ondoren, eta Hirigintza, obra eta zerbitzuetako batzordeak kontratazio espedientearen aurrean egindako kontratazio-proposamena, horrekin batera doan dokumentazioa eta gaiarekin lotutako gainontzeko gorabeherak ikusita, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, zera erabaki du:

- 1.- Jardunbide ireki bidez kontratatzeko espedientea eta kontratua araupetzeko administrazio-baldintza zehatzen orria onartzea, bai eta urteko ehun eta hamahiru mila lauehun eta hogeita hamazazpi euro eta berrogeita hamar zentimotako (113.437,50 €) gastua ere.
- 2.- Preskripzio Teknikoen Orria onartzea.
- 3.- Esleipena egiteko jardunbideari hasiera ematea.

V.- UR HORNIDURAKO KONTAGAILUEN KONTRATAZIO ESPEDIENTEA .-

Lazkaoko etxeko ur hornidurako ur kontagailuen hornidurarako kontrataziorako osatutako espedientearen inguruan Estensoro zinegotziak esaten du beste herri batzuetan irrati bidezko irakurketa egiteko sare finkoa jartzearen hautua egin dutela eta bestalde hori egiteko diru laguntza lortu dutela eta hemen ere hori horrela egitearen aukera aztertu behar litzakela.

Alkateak erantzuten dio, egingo dela eta beraz gaia mahai gainean gelditzen da.

VI.- EUSKARAKO DIRU LAGUNTZAK.-

Euskarako Batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, honako erabaki hauek hartu ditu:

Pello Joxe Aranburu Ugartemendia: "Hiazinto Fernandorena Setien, adar ugariko arbola" liburuaren proiektua bideratzeko 875 € diru laguntza eskariaren aurrean, eskatutako diru laguntza ematea.

Aranzadi zientzia elkarteak: eta bere izenean Joxealberto Andres Zurutuzak, Goierriko onomastika eta toponomastika garaikidearen kartografiaketa ikerketa egiteko 875.- €ko dirulaguntza eskariaren aurrean eskatutako diru laguntza ematea.

San Benito Ikastolari Urruña/Ziburuko Ikastolaren alde: Lazkaoko San Benito ikastolak Urruña/Ziburuko ikastolarekin bat eginik 2014ko abenduaren 27an jaialdia antolatu zuten Ordizian, aipatutako ikastolaren alde dirua ateratzeko. Hau honela eta eskatutako 300 € diru laguntza eskariaren aurrean, Ziburu / Urruñako ikastolari eskatutako diru laguntza ematea.

Motorra eta autoa gidatzeko baimena euskaraz ateratzeko: 2014. Urtean motorra eta autoa gidatzeko baimena euskaraz ateratzeko dirulaguntza eskaera 14 lagunek egin dute.

Lazkaoko Udalak 2014ko aurrekontuan horretarako aurreikusitako dirua 1.322.- € izan da, beraz bakoitzari 94.- €ko dirulaguntza dagokio. Hau honela, bere espedientean dagoen zerrendako eskatzaileei guztira 1.322 €ko diru laguntza ematea erabakitzen da.

Mintzalaguna Proiektua: Proiektu hau bideratzen duen Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarteari 2014ko irailetik abendura bitarteko denboraldiari dagokion 5.000 €ko diru laguntza ematea.

VII.- KOMUNIKAZIO ETA PARTEHARTZEKO DIRULAGUNTZAK.-

Komunikazio eta Partehartze Batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, honako erabaki hauek hartu ditu:

Goierri Telebista: Goierriko Udalak eta Goierriko Ikuskari S.L.-ren artean 2015eko urtarri-lean izenpetutako hitzarmenaren arabera, Goierriko Ikuskari S.L.-k 2015. urtean emango duen komunikazioa zerbitzua finantzatu ahal izateko, Goierriko Udalek biztanleko 2 €kin laguntzea hitzartu dute. Diru kopuru hau 2003an adostu zen kopuru bera da. Hau honela eta batzordeak egindako proposamenaren aurrean orain erdia, hau da, 5.350 € ematea onartzen da.

VIII.- KULTURAKO DIRU LAGUNTZAK.-

Alkatea esaten du eguneko gai zerrendan ez badago ere, Beneditarren Fundaziotik udalaren diru laguntza aurreratzeko eskaria jaso dela eta diruarekin estu ibiltzen direnez, gaia gaur bilkuran jorratzea eskatzen duela, presazko izaeraz onartu eta gai zerrendan sartuz.

Denak ontzat ematen dute proposamena.

Hau honela, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoarekin, Beneditarren Fundazioari izendatuta daukan diru laguntzaren erdia, hau da, 10.000 € orain ordaintzea erabakitzen du.

IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du mila eta berrogeita hamar (1.050 €) euroko zor bat dela medio, hil honen 25ean errumaniar familia bat bere etxetik bota egingo du-tela, eta horren aurrean eskatzen dio alkateari gaiaz arduratu eta kudeatu dezala.

Alkateak baietz erantzuten dio, egingo duela eskatzen diona.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hiruak eta hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

